

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

1. GAIA: AISIALDIA



Egitekoa:

- ❖ Aisialdian zer duzu gustukoen egiteko?
- ❖ Zer-nolako aukera ditugu aisialdian: irakurri, kirola egin, lagunekin egon..
- ❖ Aisialdia garrantzitsua al da?
- ❖ Aisialdia eta adina. Nola aldatzern dira aisialdirako aukerak?
- ❖ Zer egiten duzu asteburuetan? Nora joaten zara? Norekin ibiltzen zara lagunekin ala familiarekin? Non ibiltzen zara?
- ❖ Zure etxekoan ohiturak aisialdiari begira. Zeintzuk dira?
- ❖ Aisialdia eta dirua. Aisialdia ondo pasatzeko dirua beharrezkoa alda?

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

Gai gehiago, hemen: euskaragara.net

2. GAIA: ALKOHOLA?



Egitekoa:

- ❖ Jendea gero eta gazteago hasten da alkohola edaten? Zergatik izan daiteke?
- ❖ Euskalerrian tradizio handia dago alkoholaren inguruan: poteoa, txokoak, jaiak,... Zein iritzi duzu honetaz?
- ❖ Nola ikusten duzu Erandio zentzu honetan?
- ❖ Alkoholaren inguruko ohiturak berdinak dira jende nagusia eta gaztearen artean?
- ❖ Jendea gero eta gazteago hasten da edaten. Zer deritzozu?
- ❖ Nola ikusten duzu boteiloitzarra?
- ❖ Nola ikusten duzu alkohola eta kotxea? Bateriaezinak dira?
- ❖ Zeintzuk dira zure ohiturak eta ingurukoak

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: **2. MAILA**

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

3. GAIA: ANIMALIAK ETXEAN



Egitekoa:

Zer pentsatzen duzu animaliak etxean izateko ohiturei buruz? Ohitura ona iruditzen al zaizu? Zein dira alde onak eta alde txarrak? Ba al daukazu animaliarik? Eta zure inguruan zein animalia daude? Arazorik sortzen al dute?

Zehatzago

Azaldu etxean animaliarik inoiz izan duzun ala ez, zein diren animalia batek ematen dituen lanak, zein diren animaliak etxean izatearen abantailak eta desabantailak, inoiz txakur edo beste animalia batekin arazorik izan duzun ala ez

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

4. GAIA: ARAZOAK GURE ERREPIDEETAN



Egitekoa:

Autorik gidatzen al duzu? Arazorik izaten duzu errepideetan?

Zehatzago

Azaldu nola joaten zaren egunero lanera/eskolara. Zenbat denbora behar duzu? Arazorik izaten duzu? Ez al daude kotxe gehiegi gure hiri/herrietan? Zein alternatiba dago: metroa, bizikleta, autobusa... Kotxearen arazoa: aparkatzea. Nola dago zure hirian?

Eman zure iritzia trafiko arazoei buruz. Proposatu neurriren bat zure inguruan arazoak gutxitzeko

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

Gai gehiago, hemen: euskaragara.net